

LINO AKESOLO OLIBARES


Zenon Uriguen
pasiotarra



“Alegintzen danak emari zoragarriak eskuratzen ditu, zentzutasunean onarritzen danak sustrai iraunkorrak izango” (Jakinduria 3-15)

Euskal ume baten izaera altxor izkutua da, egunen baten biziaren eraginez argituko da garaipen pozgarria. Bere barru-barruan, erne muiñetan dagoz gaitasun gorenak, baliakizunak eta Kristau fedean elburu gorenak. Altxor ori ezagutarazteko gurasoak dira leenak ta aukerakoak. Eta sendi barrua da txokorik bikañena ori burutzeko. Gogora datorkigu Jesus umearen eredua. “Jesus azi egiten zan jakituriz, gorputzez eta graziz” Ara emen gaztediaren elburu zoragarria. Lino Akesolo Dima (Arratia-Bizkaia) Kristau familia eder baten jaioa dogu 1911an, aprillaren 7an. Lino umeak bere barruko altxor izkutua beingoan agertuko dau bere onberatasuna ta buru argitasuna eliza eta Euskadi osoan. Benetan ume oso argia ta burutsua da. Karmeldarren ikastetxetan egingo ditu eliz ikasteak, Zornotza, Markina, Gaisteiz eta Begoñan. Eliz ikasteak amaiturik apaizgintza artzen dau.

EUSKERA ZALETASUNA



Bene-benetako euskaldun jatorra izateko euskera izkuntza ondo ikasirik idazlari ospetsua izango da. Gipuzkoeraz ere ainbat lan ederrak idatziko ditu. Bere Bizkaierak berarizko gozotasuna ta berezkotasuna ditu ezaugarri. Bere buruaren argitasuna jantziko dau eliz ikasteetan ondo ikasirik Latin, frantzez, aleman ta ingles eta arduratu zan Filosofo de beste jakitunen idazlanak euskeraz eta erderaz jartzen. Origaitik Gotzaitegiak eta Foru aldundiak omenaldiak egin eta eskeintzen dautsez ikas-lan batzuk. Biblioteka ikasteak eginik Begoñako liburutegian arduraduna da. Bere jarduerak izan ziran Euskerazaintza, Euskaltzaindia. Atsedean tanta bat artu barik idazlanak argitaratuko dauz Karmengo Argia, Karmengo Egutegia, Zeruko Argia ta Riev Aldizkarietan. Gerra ostean espetxeratu egin dabe Euskera zaletasuna ta idazlanak gaitik.

EKINTZA MIRESGARRIAK

Euskerazaintzako leen buru, Euskalzain urgazlea eta Eusko Jaurlaritzaren euskera batzarkide. Diccionario de autoridades del Euskera iztegiaren arduraduna da. Karmeldarren Donostia eta Markiñako fraide-etxetan Nagusi izan zan. Geroago Begoñara bialdu dabe. Zer egiteko? Zeregin arduratsu eta neketsu bat egiteko. “Diccionario Retana de Autoridades”, arazoari, ber-asiera ta amaiera bein-baten emoteko. Aita Lino Dimako seme jator eta ospetsuak merezi dau benetan, omenaldi bat batez be erriaren eredu bikaña izan daiten orain eta beti. Dima-ko Udalak erabaki dau omenaldi eder ori egitea: plaka bat bere izenagaz jartzea plazan, bere argazkien erakuspen ikusgarria, eliz ederrean meza santua, bertsolariak, bazkaria ta erromeria. Aita Lino Akesolo Bilbon il zan 1991 urtean irailaren 17an, 80 urtekin.G.B.) **“Alegintzen danak emari zoragarriak eskuratzen ditu”**

